BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

5481

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 30ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, kobrezko hodiak fabrikatzeko jardueraraako ingurumeneko baimen bateratua emateko dena, Zaratamo, Basauri eta Galdakaoko (Bizkaia) udalerrietan, Outokumpu Copper Tubes SA enpresak sustatua.

AURREKARIAK

2007ko martxoaren 8an, Outokumpu Copper Tubes SA enpresak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2006 Legeak xedatutakoaren arabera, Zaratamo, Basauri eta Galdakaoko (Bizkaia) udalerrietan, Outokumpu Copper Tubes, SA enpresaren kobrezko hodiak ekoizteko instalazioaren proiekturako. Eskaerarekin batera Zaratamo eta Basauriko Udalen aldeko Hirigintza Txostenak (2006ko uztailaren 26 eta 27koak, hurrenez hurren) eta ondoko agiri teknikoak aurkeztu zituen: «Zaratamo, Basauri eta Galdakaoko (Bizkaia) udalerrietan Outokumpu Copper Tubes SA enpresaren instalazioetarako ingurumeneko baimen bateratuaren eskabidea» (2007ko otsaila) eta «Laburpen ez-teknikoa» (2007ko otsaila).

Erreferentziako baimena eskatzeko orduan, Outokumpu Copper Tubes SA enpresak, besteak beste, irekitzeko baimena zuen, 1995eko urtarrilaren 23koa. Aipatu baimena kobrezko hodiak ekoizteko eman zitzaion. Halaber, enpresa sustatzaileak honako baimenak zituen: Ibaizabal ibaira isurtzeko baimena, 1992ko abendukoa, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko kolektorera isurtzeko baimena, 2004ko irailaren 30ekoa, eta hondakin arriskutsuen ekoizlearena, 2007ko otsailaren 9koa, ur eta hondakinen inguruan indarrean dagoen araudiaren araberakoa.

2007ko martxoaren 14an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran eskuhartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkien, Ingurumen Organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez (Zaratamo, Basauri eta Galdakaoko Udalei, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Iparraldeko Urkonfederazioari).

2007ko apirilaren 25ean eta urriaren 23an, Ingurumen Organoak agiri osagarriak txertatzeko eskatu zion sustatzaileari, eta espedientea 2007ko azaroaren 6an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Outokumpu Copper Tubes SA enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, hainbat alegazio aurkeztu direla egiaztatu da, eta modu laburtuan I. eranskinean jaso dira.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko otsailaren 21ean Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Zaratamo, Basauri eta Galdakaoko Udalei, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari eta Iparraldeko Ur-konfederazioari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko apirilaren 15ean, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Outokumpu Copper Tubes SA enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako Ebazpen-Proposamena gehituz.

2008ko apirilaren 25ean Outokumpu Copper Tubes SA enpresaren jakinarazpena jaso zen. Jakinarazpen horretan hainbat ohar egiten ziren Ingurumeneko Baimen Bateratuaren ebazpen-proposamenari buruz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoa betez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusia dutenak.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Outokumpu Copper Tubes SA enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen sortzaileak behar dituen baimenak; Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren saneamenduko sare orokorrera eta Ibaizabal ibaira isurketak egiteko baimena; eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkionak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura ordezkatzen du; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak

aplikatuz, Outokumpu Copper Tubes SA enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Zaratamo, Basauri eta Galdakaoko Udalen eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri egokienen erabilera eta aplika dakiokeen alorreko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen 2005eko maiatzeko «Referente Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry» BREF txosteneko eta 2001eko abenduko «Referente Document on Best Available Techniques in the Non Ferrous Metals Industries I-II» BREF txosteneko edukiak hartu dira kontutan.

Espedienteko txostenak eta aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, horiekin lotuta txostena erantsi da I. eranskinean, eta ebazpen-proposamena egin eta Outokumpu Copper Tubes SA enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da, eta organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako araudiaren 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2006ko ekainaren 2an emandako ebazpen-proposamena; Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 29/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; Legea burutzeko araudia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta aplikatzeko den gainerako araudia, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Outokumpu Copper Tubes SA enpresari (egoitza soziala: Zaratamoko (Bizkaia) udalerriko Arkotxa auzuena, z/g; IFK: A80250558) Outokumpu Copper Tubes SA enpresaren kobrezko hodien ekoizpen-instalaziorako Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituz.

Era berean, Ingurumeneko Baimen Bateratu hau eman da, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 19. artikuluaren arabera, Arroko Erakundeak landu beharreko txostenaren emaitzei kalterik egin gabe.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.5.b kategorian dago, «Metal ez-ferrosoak, aleazioa barne, eta berreskuratzeko produktuak (fintzea, moldea galdaketan) galdatzeko instalazioak, berun eta kadmiorako 4 tona edo gainerako metal guztietarako 20 tona baino gehiagoko urtze-gaitasunarekin, egun bakoitzeko».

Outokumpu Copper Tubes SA enpresa Arkotxa z/g auzoan kokatzen da, Zaratamo, Basauri eta Galdakaoko (Bizkaia) Udalerriei dagozkien hiru lursailetan. Lur-eremuaren azalera, guztira, 78.714 m^2-koa da.

Jarduera kobrezko lehengaia hodietan eraldatzean oinarritzen da. Aplikazioak, medikuntzan, industrian, hozte-sisteman eta aire girotuan ditu.

Ekoizpen-prozesua hainbat etapatan zatitzen da. Horietako lehena lehengaiak jasotzeari dagokio eta jarraian, 210 t/o-ko urtze-gaitasuna duen Shaft Labean garatzen den urtze-prozesura bideratzen dira.

Materiala urtu ostean, galda Birlec Labera pasatzen da eta Cu/P gehitzen zaio, isurketa desoxidatzeko eta lingote moduan erauzteko. Ondoren, erauzitako lingoteak hozte-hobian, grafitodun uraren nahasketa duen horretan, sartzen dira. Jarraian, lingoteak mozketa-zerra batera pasatzen dira luzera jakin batzuetan zatitzeko eta aurreberokuntza-labera eramaten dira «totxoak» lortuz.

Ondoren, «totxoak» hiru indukzio-labetan sartzen dira. Horien ondoren 3.150 t-ko Prentsa Hidraulikoa dago eta han estrusioa egiten da. Horren ondorioz, luzeran 12 eta 15 m dituzten hodiak lortzen dira eta hozte– eta desoxidazio-bainutik pasatzen dira.

Jarraian, ijezketa hotzean egiten da, hodiak ijezte-eraztun ildaskatuen eta mandrino baten artean pasarazten dira eta eraztunak eta hodia kanpotik hoztu eta lubrifikatzen dira. Gainera, barne-lubrifikazioa darama taladrina bidez mandrinorako.

Bestalde, tenkatze-etapan hodi ijeztura pasatzen da trefilagailu eta mandrino baten artean. Ondoren, erroiluak akabera-makinetara bideratzen dira, barne- eta kanpo-diametroa aldatuz.

Halaber, zenbait hodiri berotze-prozesua aplikatzen zaie, bezeroak eskatutakoaren araberako ezaugarri fisikoak emateko. Prozesu hori hiru labetan egiten da; horietako bi gas naturalarekin dabiltza eta hirugarrena elektrikoa da.

Azkenik, amaierako produktua paketatu egiten da ondoren bezeroari bidaltzeko.

Plantaren ekoizpen ahalmena urtean 30.000 tona piezakoa da.

Ekoizpen-prozesuan erabiltzen diren energia-baliabideak energia elektrikoa, gas naturala eta gasolioa dira. Gas naturala urtzeko, berotzeko eta tratamendurako labeetan erabiltzen da; gasolioa, berriz, orgatila garraiatzaile eta beste ibilgailu batzuetarako da.

Bestalde, ekoizpen-prozesuan zein langileen zerbitzuetan erabilitako ura udal-saretik dator. 2006an 108.383 m^3 ur kontsumitu zen.

Lehengai nagusiak (kobrezko katodoa, kobrezko lingotetxoak, txatarrak eta fosforo-kuproa) Txatarra parkean biltegiratzen dira hormigoiz estalitako eta murru batek mugatzen duen eremu ireki batean.

Instalazioan sortutako isurtze atmosferikoak 26 isurtze-fokutara lotzen dira. Horiek, bereziki, urtzeko zein aurrez berotzeko, tratamendurako, tenkatzeko eta abarretako labeei dagozkie.

Urtzeko, tratamendu termikorako eta tenkatzeko labeek isurtze atmosferikoak hartzeko sistema dute baina ez dute arazketa-sistemarik.

Vacua garbiketa-makinek, 2. lerroko ijezkailuak eta Schumag1 tenkatze-makinak sortutako isurtze atmosferikoak hartu eta arazteko sistema dute.

Instalazioan sortutako efluenteen artean, Shell baineratik zein ultrairagazpenetik datozen industria-urak daude. Halaber, ur sanitarioak eta purgak eta hozte-zirkuituko husteak sortzen dira. Horiek, industria-urekin batera, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren saneamendu-sare orokorrera bideratzen dira.

Bestalde, instalazioan sortzen diren euri-urak zuzenean Ibaizabal ibaira isurtzen dira bost isurketa-punturen bidez.

Sortutako hondakin arriskutsu nagusiak grafitodun ur-lohiak, mekanizatze-emultsioak, beste disolbatzaile batzuk eta disolbatzaile halogenatuen nahasketak, hidrokarburoen nahasketa, emultsio oliotsuen hondakina eta «zerbitzu orokorren» prozesura lotutakoak dira. Bestalde, sortutako hondakin ez-arriskutsu nagusiak kobrezko zepak, burdin txatarrak eta «zerbitzu orokorren» prozesura lotutako beste hondakin batzuk dira.

Proiektuak, Teknika Erabilgarri Onenak (TEO) izan daitezkeen ondorengo neurriak barneratzen ditu: ekoizpen-prozesu osoa Kalitatearen Kudeaketa Sistemak eta Ingurumena Kudeatzeko Sistemak kontrolatzen du, perkloroetilenoa berreskuratzeko bi destilagailu ditu, ura duen hoztea erabiltzen da zirkuitu itxian, uren tratamendurako iragazki-sistema eta hainbat putzu septiko ditu, Light Wieght Factor (LWF) prozedura ezarri da ahalik eta kobre-kopuru txikiena erabiltzeko.

Bigarrena.– Outokumpu Copper Tubes SA enpresak Zaratamoko (Bizkaia) udalerrian sustatutako kobrezko hodien ekoizpen-jarduerarako ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea:

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Outokumpu Copper Tubes SA enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Outokumpu Copper Tubes SA enpresaren instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte Ebazpen honetan ezarritako balioak gaindituko.

Prozesuan zehar atmosferara egiten den kutsatzaileen igorpen oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko dira igorpenaren ezaugarrien arabera diseinatutako arazketa-sistema batetik igaro ondoren.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Atmosferara doazen efluenteak tratatzeko eraiki, ustiatu eta mantenduko diren instalazioek tenperatura aldaketari eta efluenteen konposaketa desberdinei ere aurre egingo diete. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Outokumpu Copper Tubes SA instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Katalogazioa. Taldea	UTM koordenatuak	
				X	Y
1	48001522-01	Shaft Labea	B	510.810	4.786.738
2	48001522-02	Baufor	C	510.680	4.786.858
3	48001522-03	Vacua 3	C	510.695	4.786.835
4	48001522-04	Vacua 2	C	510.575	4.786.944
5	48001522-05	Junker Labea	C	510.648	4.786.901
6	48001522-06	Junker Labea	C	510.641	4.786.912
7	48001522-07	Junker Labea	C	510.633	4.786.923
8	48001522-08	Elphiac Labea (Schumag 3)	C	510.606	4.786.963
9	48001522-09	Sarlin Labea	C	510.688	4.786.938
10	48001522-10	Sarlin Labea	C	510.679	4.786.949
11	48001522-11	Sarlin Labea	C	510.670	4.786.963
12	48001522-12	Spinner 3	C	510.554	4.787.060
13	48001522-13	Spinner 4	C	510.572	4.787.074
14	48001522-14	Spinner 7	C	510.597	4.787.016
15	48001522-15	Prentsa (Aurreber Labea 1)	B	511.046	4.786.572
16	48001522-16	Prentsa (Aurreber Labea 2)	B	511.033	4.786.575
17	48001522-17	Ijezkailua 2 Lerroa	C	511.062	4.786.535
18	48001522-18	Schumag 1	C	510.954	4.786.566
19	48001522-19	Ebner Labea	C	510.903	4.786.613
20	48001522-20	Ebner Labea	C	510.893	4.786.615
21	48001522-21	Spinner 1	C	510.903	4.786.579
22	48001522-22	Spinner 1	C	510.902	4.786.575
23	48001522-23	Spinner 2	C	510.851	4.786.595
24	48001522-24	Spinner 2	C	510.846	4.786.608
25	48001522-25	Spinner 2	C	510.999	4.786.586
26	48001522-26	Shell Bainuontzia	C	510.982	4.786.591

Honako foku hauen altuera eta diametroaren informazioa emango da: 5, 6, 7, 9, 10, 11, 20 eta 26.

Gainera, isurtze barreiatuak sortzen dira etenkako erregimenean, Baufor makinan hodiak garbitzerakoan eta ibilgailuekin materialak garraiatzerakoan.

B.1.1.3.-Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gainditukо:

Fokuak	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1. fokua	Partikulak	10 mg/Nm^3
	LK	500 ppm
	SO2	130 mg/Nm^3
	NOx	400 ppm
2. fokua	Perkloroetilenoa	20 mg/urte
3. fokua	Partikulak	20 mg/Nm^3
4. fokua	Partikulak	20 mg/Nm^3
5. fokua	KOH	150 mgC/Nm^3
	LK	500 ppm
	NOx	400 mg/Nm^3
6. fokua	KOH	150 mgC/Nm^3
	LK	500 ppm
	NOx	400 mg/Nm^3
7. fokua	KOH	150 mgC/Nm^3
	LK	500 ppm
	NOx	400 mg/Nm^3
8. fokua	KOH	150 mgC/Nm^3
9. fokua	KOH	150 mgC/Nm^3
	LK	500 ppm
	NOx	300 ppm
10. fokua	KOH	150 mgC/Nm^3
	LK	500 ppm
	NOx	300 ppm
11. fokua	KOH	150 mgC/Nm^3
	LK	500 ppm
	NOx	300 ppm
12. fokua	KOH	150 mgC/Nm^3
13. fokua	KOH	150 mgC/Nm^3
14. fokua	KOH	150 mgC/Nm^3
15. fokua	KOH	150 mgC/Nm^3
	LK	500 ppm
	NOx	300 ppm
16. fokua	KOH	150 mgC/Nm^3
	LK	500 ppm
	NOx	300 ppm
17. fokua	KOH	150 mgC/Nm^3
18. fokua	KOH	150 mgC/Nm^3
19. fokua	KOH	150 mgC/Nm^3
20. fokua	KOH	150 mgC/Nm^3
21. fokua	KOH	150 mgC/Nm^3
22. fokua	KOH	150 mgC/Nm^3
23. fokua	KOH	150 mgC/Nm^3
24. fokua	KOH	150 mgC/Nm^3
25. fokua	KOH	150 mgC/Nm^3
26. fokua	KOH	150 mgC/Nm^3

Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditukо arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta.

Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40a gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gaindituz gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-eko presioa eta gas lehorra.

Garbiketa-lanetarako isurketa barreiatuen muga-balioa (disolbatzaileen sarrera-portzentajea) % 10ekoa da.

KOHei dagokienez (KOG bezala neurtuta), ez dira isurtzeko muga-balioak gainditukо, arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), baldin eta neurketa guztien batez bestekoek isurtzeko muga-balioak gainditzen ez badituzte eta ordubeteko neurketa batek ere isurtzeko muga-balioak gainditzen ez baditu (1,5etik gorako faktorea).

B.1.1.4.-Gasak biltzeko eta husteko sistema.

Fokuetako gas-hondarrak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruz 1976ko urriaren 18an emandako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute.

L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetan, inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-puntuaren baliozkotasuna justifikatzea eskatuko da.

B.1.2.– Isurketarako baldintzak.

B.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	UTM koordenatuak	
				X	Y
1	Industria-urak	Shell bainuontziko eta hozte-dorreetako purgetako urak	Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa	511.063	4.786.655
2	Industria-urak	Ultrairagazpeneko urak	Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa	511.090	4.786.693

B.1.2.2.– Gehienez isuri daitekeen emaria eta bolumena.

a) 1. isurketa: Industria-urak:

– 1.a. isurketa: Shell bainuontziko urak.

Urteko gehienezko bolumena	75 m^3

b) 2. isurketa: Ultrairagazpeneko urak.

Urteko gehienezko bolumena	56 m^3

B.1.2.3.– Isurien muga-balioak.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko kolektorera doazen isurketei buruzko araudian agertzen diren mugak eta baldintzak bete behar ditu azken isurketak, erakunde horrek aintzat har ditzakeen zehaztapen, aldaketa edo salbuespenekin.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Agortutako olio eta taladrinak, bai eta ultrairagazpenean sortutako hondakin-olioa ere, hondakinen kudeatzaile baimenduak kenduko ditu eta debekatua dago horiek saneamendu-sarera isurtzea. Horien biltegiratzea kubeta gainean eta estalpean egingo da.

Mekanizatze-txatarrak eta -txirbilak dituzten edukiontziak nabearen barruan biltegiratu behar dira edo bestela, kanpoan biltegiratzen badira, estalpean egon behar dute hondakin oliotsuak eta taladrinak euri-urek euri-uren sareetara eraman ez ditzaten.

B.1.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Arazketa-instalazioek edo hondakin-urak zuzentzeko neurriek honako jarduera hauek barne hartuko dituzte funtsean:

Gauzatzeko dauden jarduketak:

1.– Exekuzio-epe zehatzak jasoko dituen egokitzapen-plana aurkeztuko da, kutsadura eraman dezaketen euri-uren jasotze- eta tratamendu-egokirako.

2.– Industria-isurketa guztiak saneamendu-sare orokorrera lotura daudela egiaztatuko da, loturaren data zehatza adieraziz.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Outokumpu Copper Tubes SA enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketako instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Aurkeztutako agirien arabera, hiru kontrol-kutxeta jarriko dira, bat saneamendu-sarera konektatzeko puntu bakoitzeko eta isurien lagin esanguratsuak lortzeko behar dituzten ezaugarri guztiak izango dituzte. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan

kokatuko dira, hala badagokio. Kasu honetan, efluenteak kontrolatzeko nahitaezkoa da ondorengo elementuak izatea:

- Laginak hartzeko txorrota.
- Ordu kontagailuak bolumena zenbatzeko.

B.1.3.– Plantan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes eginez gero, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Zaratamo, Basauri eta Galdakaoko Udaletan.

B.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

- 1. prozesua: «Galdaketa».
  - Hondakina: «Grafitodun ur-lohiak».
    - Identifikazioa: A80250558/4800001002/1/1.
    - Hondakinaren kodea: Q7//R13//L21//C24/51//H14//A225(1)//B3224.
    - EHZ: 100609.
    - Urtean sortutako kantitatea: 100 tona.

Kobrezko lingote urtuaren hozte-ura dekantatzerakoan sortzen da, grafitoa eta koipeak dituen ura da.

1.000 litroko bidoietan biltegiratzen da eta zisterna-kamioi bidez jasotzen du kudeatzaile baimenduak.

● 2. prozesua: «Ijezketa».

○ Hondakina: «Mekanizatze-emultsioak».

– Identifikazioa: A80250558/4800001002/2/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//R13//L9//C51//H5//A225(1)//B3258.

– EHZ: 120114.

– Urtean sortutako kantitatea: 180 tona.

Makinen olio-ihesekin nahasten den taladrina dekantatzerakoan sortzen da, dagozkien dekantagailuetan.

Lurrazpiko edukiontzi metalikoan eta 1.000 litroko edukiontzietan jasotzen da, hondakin horrentzat identifikatuak. Betetzen direnean, hondakinen biltegira eramaten dira.

● 3. prozesua: «Tenkatze eta akabera».

○ Hondakina: «Bestelako disolbatzaileak eta disolbatzaile halogenatuen nahasketak».

– Identifikazioa: A80250558/4800001002/3/1.

– Hondakinaren kodea: Q5//R2//L5//C40/51//H5//A225(1)//B3258.

– EHZ: 140602.

– Urtean sortutako kantitatea: 15 tona.

Hodien barne-garbiketaren disolbatzaile zikina kentzerakoan sortzen da; taladrina-hondarrak dituen disolbatzaile halogenatu erabilia da.

Hondakin horrentzat identifikatutako mila litroko edukiontzian biltzen da sortzen den lekuan edo lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ Hondakina: «Hidrokarburoen nahasketa».

– Identifikazioa: A80250558/4800001002/3/2.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//L9//C41/51//H3B/5//A225(1)//B3258.

– EHZ: 140603.

– Urtean sortutako kantitatea: 80 tona.

Hodien kanpo-garbiketaren disolbatzaile zikina kentzerakoan sortzen da; taladrina- eta olio-hondarrak dituen disolbatzaile ez-halogenatu erabilia da.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

● 4. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ Hondakina: «Olio erabiliak».

– Identifikazioa: A80250558/4800001002/4/1.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5/6//A225(1)//B0019.

– EHZ: 130205.

– Urtean sortutako kantitatea: Noizean behin.

Makinen mantentze-lanetan olioa berrezartzeko lanetan sortzen da; olio mekaniko eta hidrauliko erabiliak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ Hondakina: «Sailkatu gabeko pilak».

– Identifikazioa: A80250558/4800001002/4/2.

– Hondakinaren kodea: Q6//R4//S37//C11/16/22//H6/14//A225(1)//B0019.

– EHZ: 200133.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Pila agortuak birjartzeko eragiketetan sortzen da, eta eraginkorragoa denez, taldeka biltzen dira; merkurioa, kadmioa eta beste metal-oxido batzuk dituzten pilak dira.

Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen dira, horretarako berariaz jarritako gunean.

○ Hondakina: «Hodi fluoreszenteak eta merkurioa duten lanparak».

– Identifikazioa: A80250558/4800001002/4/3.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H6/14//A225(1)//B0019.

– EHZ: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Merkurioa duten lanpara erabiliak birjartzeko eragiketetan sortzen da.

Hondakinarentzat identifikatutako kutxan biltzen da, horretarako berariaz jarritako gunean.

○ Hondakina: «Tresna ofimatikoak».

– Identifikazioa: A80250558/4800001002/4/4.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C6/11/18//H6/14/A225(1)//B0019.

– EHZ: 160213.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Ekipo elektrikoak eta elektronikoak birjartzean sortzen da; baztertutako ekipo ofimatikoak dira.

Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian jasotzen da hondakin arriskutsuen biltegian.

○ Hondakina: «Disolbatzaile organiko ez-halogenatuak».

– Identifikazioa: A80250558/4800001002/4/5.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L9//C41/51//H3b/5//A225(1)//B0019.

– EHZ: 140603.

– Urtean sortutako kantitatea: 2 tona.

Tresnen garbiketa-ekipoaren disolbatzaile zikina kentzerakoan sortzen da; olio-hondarrak dituen disolbatzaile erabilia da.

Hondakin horrentzat identifikatutako bidoi metalikoan biltzen da sortzen den lekuan.

○ Hondakina: «Hondakin sanitarioak. II. taldea».

– Identifikazioa: A80250558/4800001002/4/6.

– Hondakinaren kodea: Q16//D14//S1//C35//H9//A225(1)//B0019.

– EHZ: 180103.

– Urtean sortutako kantitatea: 2 kilogramo.

Zerbitzu Medikuaren azpiprozesuan sortzen da; hondakin ebakitzaileak eta zorrotzak dira.

Edukiontzi hermetiko batean gordetzen da, botikinean; edukiontzi horretatik atera eta zuzenean ematen zaio baimendutako kudeatzaileari.

○ Hondakina: «Xurgatzaileak eta iragazteko materialak».

– Identifikazioa: A80250558/4800001002/4/7.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//S8/34//C51//H5//A225(1)//B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 25 t.

Xurgatzaileak eta ehun-elementuak biltzean sortzen da; bereziki olio eta taladrinarekin zikindutako trapuak, material xurgatzaile eta iragazkiak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako big-bagean biltzen da, sortzen den postuan edo postuetan, eta bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ Hondakina: «Metalezko ontziak (gai arriskutsuez kutsatuak)».

– Identifikazioa: A80250558/4800001002/4/8.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A225(1)//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 4 tona.

Ontzi metaliko hutsak jaso eta pilatzerakoan sortzen da; olioak, disolbatzaileak eta taladrina eduki dituzten metalezko ontziak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako gunean jasotzen da, sortzen den postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ Hondakina: «Plastikozko ontziak (gai arriskutsuz kutsatutakoak)».

– Identifikazioa: A80250558/4800001002/4/9.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A225(1)//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: tona 1.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; bereziki olioak, disolbatzaileak eta taladrina izan dituzten plastikozko ontziak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako gunean jasotzen da, sortzen den postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ Hondakina: «Aerosolak».

– Identifikazioa: A80250558/4800001002/4/10.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S-G36//C41//H3b/5//A225(1)//B0019.

– EHZ: 160504.

– Urtean sortutako kantitatea: 200 kilogramo.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; aerosolak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da, sortzen den postuetan. Bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ Hondakina: «Zuntz-zementua».

– Identifikazioa: A80250558/4800001002/4/11.

– Hondakinaren kodea: Q16//D5//S40//C25//H7//A225(1)//B0019.

– EHZ: 170605.

– Urtean sortutako kantitatea: Noizean behin.

Instalazioetan zola gisa erabilitako fibrozementuzko plakak erretiratzean sortzen dira.

Laneko segurtasunean eskumena duen agintaritzak homologatutako enpresek ontziratu eta plastifikatzen dituzte.

○ Hondakina: «Poliklorobifeniloa eta polikloroterfeniloa dituzten transformadoreak eta kondentsadoreak».

– Identifikazioa: A80250558/4800001002/4/12.

– Hondakinaren kodea: Q12//D15//S10//C32//H6/7//A225(1)//B0019.

– EHZ: 160209.

– Urtean sortutako kantitatea: Noizean behin.

Mantentze-lan orokorreko azpiprozesuaren hondakin gisa sortzen da; kudeatzaile baimenduari entregatzeko erretiratzen da zuzenean.

● 5. prozesua: «Hondakin oliotsuen autokudeaketa».

○ Hondakina: «Emultsio oliotsuen hondakina».

– Identifikazioa: A48179196/4800018122/5/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//D9//R1//L8//C51//H5/6//A225(1)//B10712.

– EHZ: 190207.

– Urtean sortutako kantitatea: 100 tona.

Hainbat prozesutan sortzen diren oinarri urtsua duten hainbat olio-hondakinen autokudeaketa-prozesuan sortzen da. Hasierako hondakinaren % 20 inguru da.

Hondakinarentzat berariaz identifikatutako gordailuan jasotzen da, baimendutako kudeatzaile bati bidaltzeko.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Berariazko hondakin sanitarioak (II. taldea) manipulatu, ontziratu, etiketatu eta gordetzeko baldintzak Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzen dituen martxoaren 26ko 76/2002 Dekretuan eta hori garatzeko araudietan ezarritakoak izango dira.

e) Gainerako hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabete baino gehiago gorde.

f) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

g) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Outokumpu Copper Tubes SA enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

h) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

i) Outokumpu Copper Tubes SA enpresak Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko du sortutako industriako olio erabilia.

j) Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu Outokumpu Copper Tubes SA enpresak.

k) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

l) Outokumpu Copper Tubes SA enpresak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua; gero, azken ekitaldiari dagokion poliklorobifenilo edukia jakinarazi beharko du. Outokumpu Copper Tubes SA enpresak poliklorobifeniloak dituen artean, nahitaez aurkeztu behar du urtero Errege Dekretu horrek araututako jakinarazpena.

m) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Erregelamenduan ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Outokumpu Copper Tubes SA enpresak era horretako substantzia erabilirik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparatuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu edo suntsitu baino lehen.

n) Outokumpu Copper Tubes SA enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

o) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera– eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Erregistro horren norainokoa eta edukia ikuskatu egingo dira, Ebazpen honetako laugarren atalean aipatzen diren baldintzak eta betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko orduan. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

p) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezen, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Outokumpu Copper Tubes SA enpresak neurri babesleak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana egin eta aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetza honetan, gutxienez lau urtean behin.

q)Aurreko f) eta g) (kudeatzaileak EAEn daudenean), n) eta o) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

r) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Outokumpu Copper Tubes SA enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun eta osasun arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena (t/urtea)
Burdina txatarrak	150104/160117	Zerbitzu Orokorrak	179
Eduki txikiko kobre-zepak	120103/120104	Galdaketa	272
Eduki handiko kobre-zepak	120103/120104	Galdaketa	345
Paletak	150103	Zerbitzu Orokorrak	54
Papera/kartoia	150101	Zerbitzu Orokorrak	10
Plastikoa	150102	Zerbitzu Orokorrak	3
Hondakin geldoak	200301	Zerbitzu Orokorrak	78
Toner eta kartutxo hutsak	080318/080313	Zerbitzu Orokorrak	0,01

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

b) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegiratuta eduki. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez gorde ahal izango dira.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Outokumpu Copper Tubes SA enpresak artxibategian gorde eta erregistratu beharko ditu onarpen-agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak hauek nahitaezkoak direnean, bost urtean gutxienez.

d) Halaber, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, bai eta hondakin guztien sorrera– eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua ere. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aurreko c), d) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta e) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.1.4.– Lurzoruari buruzko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako betebeharrak betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Outokumpu Copper Tubes SA enpresak lurzoruaren honako neurri babesleak ezarrita izan beharko ditu:

● Galdaragintza-tailerrean eta Hodiak II Lerroan jario-mota eta bolumenaren karakterizazioa egin.

● Hondakin arriskutsuen biltegia egin kobrea urtzeko eremuan kubeta estankoarekin, eremua berriz ere hormigoitzea, kubetaranzko jaitsiera izango duen kanaleta perimetral baterantz maldarekin.

● Ordezko piezen biltegiko zola eta ihesak jasotzeko egituren instalazioa hobetzea. Biltegi guztirako eremu estankoa eraikitzea proposatzen da, ihesak jasotzeko kanaleta bateranzko malda egoki batekin.

● Grafitozko lohien biltegien azpian kubeta egokiak instalatzea grafitoa biltegiratzerakoan ihesak edo jarioak ekiditeko.

● Perkloroetilenoaren biltegien azpian kubeta egokiak instalatzea.

B.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzerakoan egiten den zaratak ez du handituko akustikoki oso sentikorrak diren aldeetako zarata-maila.

C) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Atmosferako isuriak kontrolatzea.

a) Outokumpu Copper Tubes SA enpresak botatzen dituen kutsatzaileak kontrolatu beharko ditu, ondorengoaren arabera:

Fokua	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	48001522-01	Shaft Labea	Partikulak LK SO_2 NO_x Metalak(Zn+Mn+Cu+Pb+Cr+Sn+Ni+As) HCl HF KOH	BKE Urtero
2	48001522-02	Baufor	Perkloroetilenoa	BKE 5 urte
3	48001522-03	Vacua 3	Partikulak	BKE 5 urte
4	48001522-04	Vacua 2		
5	48001522-05	Junker Labea	KOH LK NOx	BKE 5 urte
6	48001522-06	Junker Labea		
7	48001522-07	Junker Labea		
8	48001522-08	Elphiac Labea (Schumag 3)	KOH	BKE 5 urte
9	48001522-09	Sarlin Labea	KOH LK NOx	BKE 5 urte
10	48001522-10	Sarlin Labea		
11	48001522-11	Sarlin Labea		
12	48001522-12	Spinner 3	KOH	BKE 5 urte
13	48001522-13	Spinner 4		
14	48001522-14	Spinner 7		
15	48001522-15	Prentsa (Aurreber Labea 1)	KOH LK NOx	BKE 3 urte
16	48001522-16	Prentsa (Aurreber Labea 2)		
17	48001522-17	Ijezkailua 2 lerroa	Partikulak	BKE 5 urte
18	48001522-18	Schumag 1	KOH	BKE 5 urte
19	48001522-19	Ebner Labea		
20	48001522-20	Ebner Labea		
21	48001522-21	Spinner 1		
22	48001522-22	Spinner 1		
23	48001522-23	Spinner 2		
24	48001522-24	Spinner 2		
25	48001522-25	Spinner 2		
26	48001522-26	Shell Bainuontzia		

Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak baimendutako kontrol erakunde (BKE) batek egin beharko ditu (zortzi ordutan hartutako hiru neurri, gutxienez ordubetekoa bakoitza), eta aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «Baimendutako kontrol erakundeen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko du. Edonola ere, isurien kontrolek eta baldintzek Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan ezarritako eskakizun guztiak bete beharko dituzte.

Arestian eskatutako parametro guztien neurketen BKE txostenak bidaliko dira. Parametroak neurtu ez badira edota ebazpen honetan neurketak egiteko ezarritako maiztasuna baina zaharragoak badira, berriro neurtu beharko dira. Isurtze atmosferikoen gainerako kontrolak adierazitako maiztasunez egingo dira, azkeneko neurketa kontuan izanda.

Outokumpu Copper Tubes SA enpresak urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuak, jarduera jakin batzuetan disolbatzaileen erabilerak eragindako konposatu organiko hegazkorren emisioak mugatzeko baldintzei buruzkoak, ezarritakoa bete behar du. Xede horretarako, Ingurumen Sailburuordetzak eskatzen duen informazioa aurkeztu behar da.

b) Urtero, masen balantzea aurkeztu beharko da, zenbait jardueratan disolbatzaile organikoak erabiltzerakoan sortzen diren konposatu organiko hegazkorrak isurtzea saihesteari buruzko urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuak ezarritakoa jarraituz. Balantze horrek, olio-mota bakoitzeko erabilitako kopuruaren arabera, KOH-en guztizko isurtzeko muga-balioa betetzen dela justifikatu beharko du.

C.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio horrek eguneratuta egon beharko du, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskatuko balute, eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol-mota
1	Shell bainuontzitik eta purgetatik eta hozte-zirkuitua hustetik datozen industria-urak	BBUPak zehaztuko du	Aldizka	Kanpokoa (BBUP)
2	Ultrairagazpenetik datozen industria-urak.		Aldizka	Kanpokoa (BBUP)

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea zein ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du, edo hala dagokionean kolektorera lotzeko baimena ematen duen erakundeak, eta goiko puntuetan aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabeteko epean.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira.

d) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, B.1.2.3 atalean ageri diren parametro guztiek ezarritako mugak betetzen baditu.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiaburuko datuak	Unitateak	Interpretazioa egiteko adierazleak	Unitateak
Ekoizpena	Metal likidoa	t	Metal likidoa	t
Lehengai eta osagarrien kontsumoa	Lehengaien guztizko kontsumoa: ● Kobrezko katodoa ● Cu-zko lingotetxoa ● Txatarrak ● Fosforo-kuproa	t	Lehengaien guztizko kontsumoa: ● Kobrezko katodoa ● Cu-zko lingotetxoa ● Txatarrak ● Fosforo-kuproa	t
Energia kontsumoa	Gas naturalaren kontsumoa	Kwh	Gas naturalaren kontsumoa energiaren guztizko kontsumoaren aurrean	Kwh/Kwh (%)
	Elektrizitatearen kontsumoa	Kwh	Energia espezifikoa (kontsumitutako energia/berreskuratutako produktua)	Kwh/kwh (%)
	Prozesuko energia guztiaren kontsumoa	Kwh	Prozesuko energia guztiaren kontsumoa / t metal likido	Kwh/t metal likido
Isurtze atmosferikoak	Partikulen guztizko emisioa (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua)/ 1. fokurako	mg/Nm^3	Guztizko partikula-isuria	mg/Nm^3
	Guztizko partikulen guztizko isurketa	kg	Guztizko partikulen guztizko isurketa	kg
			Guztizko partikula-isuria/t metal likidoa	kg/t
	NOX-aren isurtzeak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua)/ 1 eta 5etik 16rako fokuetarako	mg/Nm^3	NOX-aren isurtzea	mg/Nm^3
	NOX-aren guztizko isurtzea	kg	NOX-aren guztizko isurtzea	kg
			NOX-aren guztizko isurtzea/t metal likido	kg/t
	Cu eta bere konposatuen guztizko isurtzea	kg	Cu eta bere konposatuen guztizko isurtzea	kg
			Metalen guztizko isurtzea/ t metal likido	kg/t
	Beste metal batzuen isurtzea (Zn+Mn +Pb+Cr+Sn+Ni+As) (gehienezkoa, gutxienekoa, lagin kopurua)/ 1. fokurako	mg/Nm^3	Beste metal batzuen isurtzea (Zn+Mn +Pb+Cr+Sn+Ni+As) (gehienezkoa, gutxienekoa, lagin kopurua)/ 1. fokurako	mg/Nm^3
	Bestelako metalen guztizko isurtzea	kg	Bestelako metalen guztizko isurtzea	kg
			Metalen guztizko isurtzea/ t metal likido	kg/t
Ur kontsumoa	Ur-kontsumoa	m^3	Ur-kontsumoa	m^3
			Ur-kontsumoa / t metal likido	m^3/t metal likidoa
Uretara egindako isurketak	Industriako isurketak/Bilbao-Bizkaia Ur partzuergoa	m^3	Industriako isurketak/Bilbao-Bizkaia Ur partzuergoa	m^3
	Euri-uren isurketa/Bilbao-Bizkaia Ur partzuergoa	m^3	Euri-uren isurketa/Bilbao-Bizkaia Ur partzuergoa	m^3
	Isuritako gai arriskutsuak	mg/l	Isuritako gai arriskutsuak	mg/l
	Metalak	mg/l	Urtero	mg/l
Hondakinak	Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kantitatea	t	Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kantitatea	t
	1.		Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kopurua/ t metal likido	t/t

	Hondakin arriskutsu baliotuak	t	Hondakin arriskutsu baliotuak / sortutako hondakin arriskutsuak	t/t (%)
	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kantitatea	t	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kantitatea	t
	1.		Sortutako hondakin ez arriskutsuen guztizko kopurua/ t metal likido	t/t
	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak	t	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak / sortutako hondakin ez-arriskutsuak (gainerako osagaiak, …)	t/t (%)
			Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kopurua / guztizko hondakinak	t/t (%)
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isuriekin lotutako gorabehera kopurua (ingurune hartzailea zehaztu: airea, ura, lurzorua)	Kopurua/urte	Ustekabeko isuriekin lotutako gorabehera kopurua	Kopurua/urte
IKS	Ezarri eta egiaztatutako kudeaketa-sistemak (zehaztu)	Bai/Ez Zein/Urtea	Ekoscan/ Urtea eta/edo ISO14001/ Urtea eta/edo EMAS/ Urtea	Bai/Ez Zein/ urtea

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lursaileko baldintza akustikoak sei hilabetean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketa-proposamen zehatz bat egin beharko du, neurtzeko metodoak zehaztuz. Proposamena ebazpen honen C.6 atalean adierazitako ingurumena zaintzeko programako agiri bateginean sartuko da.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Bidalketa urtero egingo da eta ingurumena zaintzeko programako emaitzekin batera, txosten bat aurkeztuko da. Txosten horretan adieraziko dira neurri babesle eta zuzentzaileen funtzionamendua, baita prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak ere. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

C.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretan, kutsadurari aurre hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du sustatzaileak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera, honako hauen aplikazio esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (27.440 Epigrafea. «Kobrearen ekoizpena eta lehen transformazioa»), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Outokumpu Copper Tubes SA enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

Aurkeztutako dokumentazioan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa-mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskaritzak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, zorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurre hartzeko.

c) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburu horretan kutsadura atmosferikoa prebenitzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa, etab.) egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Erabilitako olioak eta hondakinak, besteak beste, maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa dezake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen azalera guztiak irazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Ihesak eta isuriak sortzen direnean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

h) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamenduko instalaziora eramango.

i) Pabiloien barruan zolak garbitzean sortutako ura tratamendu-lerrora bidaliko da.

j) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

k) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

l) Ebazpen honen B.1.4 atalean deskribatutako jarduerez gain, gasolioa biltegiratzeko eta maneiatzeko instalazioak behar den bezala isolatuko dira, gerta daitezkeen haustura, ustekabeko gainezkatze, eta abarrei aurre egiteko.

m) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

n) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez.

o) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean, Outokumpu Copper Tubes SA enpresak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio berehala Ingurumen Sailburuordetzari.

p) Gorabehera edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, eta bertan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gertakari-mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zein ordutan gertatu den.
- Iraupena.
- Ustekabeko isuria izanez gero, emaria eta isuritako gaiak.
- Mailak gainditu badira, isurtzeei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Berriro gerta ez dadin aurreikusitako neurriak.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

q) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu egin beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, baita neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan ere. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Outokumpu Copper Tubes SA enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara eta uretara botatako isuriei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, E-E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duen apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuari jarraituz.

Informazio hori osatzen duten datuak zein ekitaldikoak direnak, ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko dira. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-eeM Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, lehendik dauden instalazioen titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnak, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko 2002ko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako Bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.1.2.4 (kutsadura arrasta dezaketen euri-urentzat egokitzapen-plana aurkeztea eta isurketak saneamendu-sarera lotu direnaren ziurtapena); B.1.3.1 g) (Sortutako hondakin arriskutsuak onartzeko agiriak); B.1.3.1 m) (poliklorobifeniloa izatearen adierazpena); B.1.3.1 p) (Sortutako hondakin arriskutsuen kontrolerako erregistro-eredua); B.1.3.2 c) (sortutako

hondakin ez-arriskutsuak onartzeko agiria); eta B.1.3.2 e) (Hondakin ez-arriskutsuen kontrolerako erregistro-eredua); B.1.4 (Lurzorua babesteko neurriak); bere kasuan, C.1 (Isuri atmosferikoen kontrola); C.1.1 (Isuri atmosferikoen erregistro-eredua); C.4 (Zarata neurtzeko proposamena); C.6 (Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); D.1 (ezohiko egoeretako isurketa eta hondakinen balioespena); D.3 a) eta b) (Mantentze-lanen eskuliburua, ikuskapen eta kontrolerako programa); D.3 g) (Larrialdi egoeretarako materialen zerrenda); D.3 h) (Kubetak husteko maniobraren protokoloa); eta D.3 q) (Suteen aurkako babeserako ziurtagiriak).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskaritza-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki direla. Horretarako, aipatutako ikuskaritza-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko ditu «as built» proiektua eta baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Outokumpu Copper Tubes SA enpresak ebazpen honen xede den kobrezko hodiak ekoizteko instalazioan titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori Ingurumen Sailburuordetzan jakinarazi beharko du, horrek onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako Hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● Outokumpu Copper Tubes SA enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Outokumpu Copper Tubes SA enpresari, Zaratamoko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 30a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.

I. ERANSKINA

ALEGAZIOEI BURUZKO TXOSTENA

Outokumpu Copper Tubes SA enpresak Zaratamo, Basauri eta Galdakaoko (Bizkaia) udalerrietan sustatutako kobrezko hodien ekoizpen-instalazioari dagokion ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduraren barruan ingurumen-organoak sustatutako jendaurrean jartzeko izapidean, bi alegazio-idazki aurkeztu dira.

Ondorengo ataletan egindako analisian agerian jarriko denez, Ingurumen Sailburuordetza honek erreferentziako instalazioaren ingurumeneko baimen bateratua ematerakoan, aurkeztutako alegazioetan proposatutako ingurumen-alderdi guztiak hartu dira kontuan. Horrela, proiektuan jasotako eta prozedura honen bidez osatutako neurri zuzentzaileak instalazioak sor litzakeen ingurumenaren gaineko balizko eraginak minimizatzera bideratuta daude.

Jarraian, aipatutako alderdiak kontuan nola izan diren xehetasunez erakusten da:

1.– Jarduera-baimena.

Alegazio-idazkietan Outokumpu Copper Tubes SA enpresa bere jarduera derrigorrezko jarduera-baimenik gabe egiten ari dela adierazten da. Gainera, Udalak, Irekiera eta Funtzionamendurako Udal Baimena lortzeko ezarritako neurri zuzentzaileak ez direla egiaztatu aipatzen da.

Horren inguruan, esan behar da Euskal Herriko Ingurumena Babesteko 3/1998 legeko 64. artikuluaren arabera, udalaren eskumenekoak direla baimenaren edukiak betetzen direla egiaztatzeko funtzioak, baita egokitzat jotzen diren ikuskaritzak egitea ere, eta hala, udaletako alkateek ahalmena dute legez kanpoko jarduerak etetea edo bertan behera lagatzea, baimenak baliogabetzea eta legeak zehaztutako zigorrak ezartzea dekretuz agintzeko.

Halaber, aipatu arauaren 65. artikuluak udalari esleitzen dizkio jarduera bat beharrezko baimenik gabe egiten ari dela jakiten denean burutu beharreko ekintzak.

Bestalde, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 11. artikuluak honakoa xedatzen du: ingurumeneko baimen bateratua ematea, bai eta 26. artikuluak aipatzen duen aldaketa ere, derrigorrezko diren gainerako baimenen aurretik izango da, besteak beste, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan, edo aplikatu beharreko erkidegoko araudian, aurreikusten den jarduera sailkatuetarako udal-baimena, III. kapituluan ezarritako koordinazio-mekanismoen kaltetan izan gabe.

Zentzu horretan, aipatu arauaren 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, «Ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzen du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal agintarientzat loteslea izango da baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere».

2.– Zarata.

Bestalde, alegatzaileek diotenez, Outokumpu Copper Tubes SA enpresak sortzen duen kutsadura akustikoak ez ditu 1998ko irailaren 11n Eusko Jaurlaritzak Ebazpen bidez aurrez ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen. Ebazpen horretan, Udalari eskatzen zitzaion enpresari eska ziezaion zarata legearen mugetara murrizteko beharrezko neurriak har zitzala (nabearen kanpoan kamioien zamalanak eta orgatilen mugimenduak debekatzea eta uneoro ateak itxita mantentzea). Horregatik guztiagatik, kutsadura akustikoa ez sortzea edo legearen araberako mugetara zehatz-mehatz murrizteko eskatzen dute, eta jarduera-baimena eman aurretik zarata-mailak egiaztatzea.

Ebazpen honetako B.1.5 atalean enpresak zaratari dagokionez bete beharreko mugak adierazten dira, dauden ingurumen-baimen guztiak nola atmosferaren kutsadurari dagozkion ingurumen-izaerako bestelako zehaztapenak egintza administratibo bakar batean bateratzeari buruz Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 11. artikuluan xedatutakoari jarraituz. Muga horiek honako hauek izango dira:

«Ondorengo mailak gaindi ez daitezen beharrezko neurri guztiak ezarriko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzerakoan egiten den zaratak ez du handituko akustikoki oso sentikorrak diren aldeetako zarata-maila».

Gainera, Ingurumena Zaintzeko Programari buruzko C.4 atalean, instalazioko zarata-kontrola adierazi da, jarduera garatzen den lursaileko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko direla adieraziz, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Kontroleko lehen urtean zehar egin beharreko azterketaren egokitasuna egiaztatze aldera, sustatzaileak neurketentzako proposamen zehatza egingo du, neurketarako metodo zehatzak jasoz. Agiri hori ingurumen organoaren aurrean aurkeztu beharreko Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bateginean txertatuko da ingurumeneko baimen bateratu honen eraginkortasuna adostu ahal izateko.